



Iparraldeko lau kontzertu Tolosan mugak gainditzeko; lehena larunbatean

ELKARLANA ▶ Euskal Kultur Erakundeak eta Udalak sinatu dute proiektua; lau kantari ariko dira 18an ▶ 2



Onintza Lasa, Daniel Landart eta Andoni Iturzaeta atzo eguerdian Triangulo plazan. LEIRE MONTES



IÑIGO TERRADILLOS


Aranalde, Inghaterran futboleant jarraitu nahian

IBARRA ▶ Azken bi hilabeteetan hango 2. mailara igo den Sheffield taldean jokatu du; bost urte daramatza Inghaterran ▶ 6

VILLABONA ▶

Julen Zelarain presoa aske utzi dute fiantzapean

Atzo gauean irten zuen Madrilgo Soto del Real espetxetik 10.000euroko bermea ordaindu eta gero ▶ 4



| | |
|--|--|
| <p>EKAINAK 25 ZALDI CARRERO ZEZENKETA FESTEJO DE RELIONES "EL SIERRA"</p> <p>BOHORQUEZ SERGIO GALAN IVAN MAGRO</p> | <p>EKAINAK 26 ZEZENKETA CORRIDA DE TOROS MUNIZ DE CUVILLO</p> <p>JAVIER CONDE MORANTE PUEBLA "CAYETANO"</p> |
|--|--|

Informazioa eta erreserbak : 943 64 16 66 10:00 - 12:00 17:00 - 21:00
659 67 65 70
Abonoak berritzeko edota berriak egiteko Tolosako Zezen plazan ekainaren 7tik 9ra 11 etatik 14 etara eta 17 etatik 19 etara, Eta Donostiako Venta Curro (Avda. Madrid) ekainaren 10etik 11ra.
Zezenketen egunetan, 10:00etatik aurrera sarrerak salgai egongo dira plazan bertan.

ABONOAK SALGAI %10 MERKEAGO

| SARRERAK SALGAI | |
|--------------------------------|--|
| TOLOSA | SAN SEBASTIAN |
| Bar "Asteasuarra" 943 673 186 | Bar "Antonio" 943 429 815 c/ Bergara |
| Café Bar "Frontón" 943 651 470 | Bar "La Espiga" 943 421 423 c/ San Marcial |
| Asador "Orue" 943 651 911 | |
| Bar "Cantábrico" 943 653 987 | BAIONA Office de Turismo |
| Bar "66" 943 671 937 | 0033 559 460 146 Place des Basques |

KULTURA ▶

Mugak gainditzen

Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko ezaguera sustatzeko asmoz, proiektu berri bati ekin diote, elkarlanean, Euskal Kultur Erakundeak eta Tolosako Udalak



Ezkerretik hasita, Daniel Landart, Onintza Lasa eta Andoni Iturzaeta, atzo, Kultur Etxean. I. ETXEBESTE

DANIEL LANDART ▶ EUSKAL KULTUR ERAKUNDEKO ZUZENDARIOREA

«Urte osoan Iparraldez oroitzea lortu behar dugu»

Elkarlanari «ilusioz» begiratzeko dio Daniel Landart EKE-ko zuzendariordeak. Erakundearen eta Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanaz mintzatu da HITZAREKIN.

Euskara eta euskal kultura bultzatzeko sortu zenuten EKE.

1990ean sortua da Euskal Kultur Erakunde, xede horrekin. Iparraldeko hiru probintzietan, erakunde ofizial bakarra da. 90 kultur elkarte eta 145 udalerririk dauka kide. Elkarrekin edota artistek proposatu egitasmoak koordinatzeaz eta diruztatzeaz gain, bere ekintza propioak ere bultzatzen ditu. Formakuntza, sorkuntza eta hedapena sostengatzen ditu.

Nola bururatu zitzaizuen Tolosara jotzea?

Elkarrekin Uztaritzen du egoitza, eta Tolosa eta Uztaritze senidetuta daude. Gainera, aspaldiko lagunak dituzte zuenena. Herri euskalduntzat eta abertzaletzat jotzen dugu Tolosa. Horrek guztiak animatu gintuen.

Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko mugarik nabaria al da?

Badago muga, bai. Bai kultura aldetik, bai politika aldetik... Gu ttipi-ttipiak gara; eskerrak Hegoaldea badugun!

Horrelako elkarlanek, behintzat, elkar ezagutzeko aukera eskainiko dute, ezta?

Horrelako ekitaldiek gure kul-



I. ETXEBESTE

tura sustatzeko balio dute. Baina lan handia dugu oraindik egiteko. Urte osoan Iparraldez oroitzea lortu behar dugu. **Tolosakoa esperientzia berria izango da, baina dagoeneko baduzue eskarmenturik.**

Esperientziarik luzeena Koldo Mitxelena aurrera daramaguna da; lau urte bete ditu elkarlan horrek, eta hainbat ekitaldi espreski hortarako prestatzen ditugu. *Kantuketan* programa izan da orain arteko garrantzitsuena: 32 aldiz aurkeztu dugu erakusketa soinu moderno eta interaktiboa, eta zazpi probintziak zeharkatu ditu. Getxon, Debagoienan, Andoain... aritu izan gara. Eta, aurtun, Amurrian eta Tolosan.

Iparraldekoak Hegoaldean. Hegoaldekoak Iparraldean ere bai?

Bai noski! Horixe da gure izpiritu: elkar ezagutza, kulturen eta gizartearen arteko trukea. ◀

LEIRE MONTES

Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko ezaguera sustatzeko asmoz, proiektu berri bati ekin diote, elkarlanean, Tolosako Udalak eta Euskal Kultur Erakundeak (EKE). Hala, urtero-urtero Iparraldeko hainbat kultur ikuskizun —kantaldiak, antzezlanak, hitzaldiak...— gozatzeko aukera izango da Tolosan. Oraingoz, urte amaiera bitarte, lau kantaldi antolatuta dituzte.

Daniel Landart EKE-ko zuzendariordeak, Onintza Lasa Euskara zinegotziak eta Andoni Iturzaeta Kultur zinegotziak eman zuten, atzo, elkarlan horren berri. Landart pozik agertu zen proiektu berriarekin, eta Udalaren jarrera eskertu zuen: «Euskal kultura sustatzea eta Iparraldeko elkarteak laguntzea dugu xede, eta zerbait ekintza ere antolatzen ditugu. Tolosako Udalarik proposamena egitea bururatu zitzaigun, eta atsegin handiz hartu zuen gure eskaintza».

Onintza Lasaren iritziz, «aberasgarria izango da Tolosa, Hegoaldean, egiten diren hainbat ekintzatan Iparraldea ere present izatea, naturaltasunez; azken finean, guztiak gara euskal herritarren». Azaroa bitarte lauzpabost ekitaldi eta hainbat artista pasatuko direla azaldu zuen zinegotziak, eta aurretik ere herriari Iparraldeko artistaren emanaldirik izan dela gogoratu zuen; Uxola sariaren banaketan, Koldo Ameztoiren eta Pantxis Bidarten kontzertua, kasu. Aurrera begira ere, «lan jarraitzeko gogo» azaldu zuen: «Iparraldea eta Hegoaldea naturaltasunez uztartzeko konpromisoa hartu nahi dugu».

«Sustrai bereko zuhaitzak»

Proiektu honetan bat egin dute Euskara eta Kultur departamentuek. «Ez da lehendabiziko aldia: poesia errezitaldian, Irazki elkarte kulturantzarekin... Beste hainbatetan ere lankidetzan aritu gara», azaldu zuen Andoni Iturzaeta Kultur zinegotziak.

Haren esanetan, «XXI. mendeak kultur aniztasunaren mendea izan beharko luke. Ghandik esan zuen bezala, «internazionalista izateko beharrezkoa da norberarena maitatzea». Azken finean, sustrai bereko zuhaitzak gara».

EMANALDIAK ▶

Euskal Kultur Erakundearen eta Tolosako Udalaren elkarlanari esker, hemendik aurrera Iparraldeko zenbait kultur ikuskizun gozatzeko aukera izango da Tolosan. Aurtun, lau emanaldi iragarri dituzte:

Jean Mixel Bedaxagar eta Mikel Urbeltz, eta Magali Zubillaga eta Philippe Escurra. Hilaren 18an, larunbata. 20:00etan, Plaza Berrian.

Bidaia bikotea: Carolina Phillips eta Mixel Ducau. Uztailaren 8an, ostirala.

Zuberoako kantak 'a capella': Jean Bordaxar, Jean-Pierre Luro, Robert Larrandaburu eta Jean-No Pinque kantariak. Irailaren 24an, larunbata.

Umama taldea. Azaroan.

Bi bikote, doinu anitz

«Bedaxagar kantuz hasten deneko, bere ahots bero, ozen eta indartsuarekin, berehala, Zuberoa agertzen zaizu, edertasunaren eta isiltasunaren ikur, mendietan gora aldira, arranoak firurikan ikusten dituzula... Kantari berezietakoa da. Haurtzaroan ikasi dituen kantak era tradizional garbienean eskaintzen ditu, baita berak asmatu kantu zenbait ere. Kantariak gain, Bedaxagarek txürüla eta tuntuena arrasongi jotzen ditu».

Mikel Urbeltz donostiar arrabita jolea lagun, «beste giro alaiako kontzertua» eskainiko dute biok larunbatean, 20:00etatik aurrera, Plaza Berrian. Noizbehinka, gainera, «dantza aireak» tartekatuko dituzte. Aurretik, Magali Zubillaga eta Philippe de Escurra bikotea ariko da, lehen kantari eta bigarrena akordeoia jotzen.

Magali Zubillaga aldudarra da sortzeaz, eta Baigorriko Iguzki-lore haur taldean hasi zen kantuan. 1987an, Euskal Kantu Txapelketan lehen saria irabazi zuen. Pier-Pol Berzaitzek idatzitako bi komedia musikaltan hartu du parte.

Philippe de Escurra urruñarrak, bestalde, Baionako Kontserbatorioan irakasle da. «Maiz improbisaketak egiten ditu, publikoa harrituta uzten duela...». Aspaldian elkarrekin egiten dituzte kontzertuak, eta laister disko bat plazaratuko dute. ◀

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33.

Etxeko lanak. Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko. Orduetgia: astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 20:00etara. 600 euro + Gizarte Segurantzaz. Erreferentziak guztiz

beharrezkoak dira. Bidali:

240 Posta Kutxa. 20400

Tolosa.

Garbitzailea. Sendi Ekintzako sagardotegirako garbitzailea behar da. 635 75 70 48.

Sukaldaria. Kartan eta menuan esperientzia duen sukaldaria behar da Alegian. Igandeetan jai. 606 61 52 93

MUSIKA ▶

Udal Musika Eskolako ikasleen kontzertua bihar

Eduardo Mocoroa Udal Musika Eskolako arduradunek jakinarazi dutenez, kontzertua eskainiko dute bihar bertako ikasleek musika eskolako areto nagusian. Hain zuzen ere, bibolina, biola, pianoa eta saxofoia jotzen ikasten ari direnak ariko dira bertan 19:00etatik aurrera. Haiekin batera, akordeoi orkestrako kideek eta koroko ikasleek jardungo dute.

KULTURA ▶

Zinemazaleei bilerarako deia egin diete gaurko

Tolosako zinemazaile guztiei zuzendutako bilera antolatu dute gaurko; 20:00etan izango da, Kultur Etxean. Udal Kultur Batzordean aurkeztu dituzte zinemari buruz adostu dituzten proposamenak, eta, orain, Leidor zinema aretoko pantaila erraldoiari agurra antolatu nahi dute, eta horretarako film berezi batzuk programatu dituzte hileren bukaerarako.

EUSKARA ▶

Aitzol-ek bukaera bikaina eman dio ikasturteari

Aitzol euskaltegiak ikastaro amaierako afaria egin zuen ostiralean Abastosen, Saioa eta Alabier trikitilariekin. 80 bat ikasle eta irakasle bildu ziren, eta patata tortila lehiaketa 8. urratseko gaueko taldeak irabazi zuen. Tokan, berriz, Roxana Medina perurak eta Luis Mari Merinok. Epaimahaiko kide izan ziren Iñaki Azaldegia, Jokin Bildarratz eta Onintza Lasa.



Tortila lehiaketa egin zuten ostiralean, besteak beste, Abastosen. HITZA

SANJOANAK ▶

Salgai dira koadrilen bazkarirako txartelak

Ostiral arratsaldean eta larunbat goizean, Orbela tabernan erosi ahal izango dira

I. ETXEBESTE

Sanjoanetako Koadrilen Eguneko bazkarirako txartelak salgai dira hileren hasieraz geroztik. Larunbatean, hileren 25ean izango da aurreko Koadrilen Eguna, eta ekimen horren harira Abastosen plaza inguruan duden bazkarian parte hartu ahal izateko alde aurretik erosi beharko dituzte txartelak herriko koadriletako kideek. Bada oraindik garaiz zabilzate. Izan ere, ostiral arratsaldean eta larunbat goizean salgai jarriko dituzte Orbela tabernan.

Hain zuzen ere, etzi, 19:00etatik 21:00etara eta etzidamu, 11:30etik 13:30era lortu ahal izango dituzte interesa duten txartelak taberna horretan. Antolatzaileek azaldu dutenez, 18 euro balio du txartel bakoitzak.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Zer iritzi duzu ikurrinaren aferari buruz? Horixe da aste honetan TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK luzatu duen galdera. Eman zure iritzia webgunean.
Inksta. Oporrei buruzko inkestan ere har dezakezu parte.

DANTZA ▶

100 dantzari trebe inguru Leidor aretoan

Izaskun Arriola dantza zentroko ikasle guztiak ariko dira, 20:30etik aurrera

IRATXE ETXEBESTE

Izaskun Arriola dantza zentroko ikasleek ikasturte amaierako emanaldia egingo dute gaur Leidor aretoan. Guztira, 100 dantzari inguruk hartuko du parte ikuskizunean. Lehengo urteetan ez bezala, saio bakarra egingo dute aurten; izan ere, gaurko ikuskizunerako bi istorio prestatu dituzte dantza zentroko arduradunek, eta bi ordu eskas irauten du osotara. 20:30ean hasiko da emanaldia, eta bertara sartu ahal izateko txartelak salgai dira Zunbeltz musika dendan; 19:30ak inguruan Leidorreko leihatilan ere salduko dituzte, 5 eurotan.

Inauteriak eta Bi kapelaren istorioa dira Izaskun Arriolak gaurko prestatu duen ikuskizunaren ardatz. Bi istorio, bata bestearekin elkar lotuta daudenak. Ikasle txikienek interperatutako dute Tolosako Inauteriei buruzkoa lehendabizi dantza eta antzerkia uztartuz, eta bestea helduagoek egingo dute, modu berean. Bi emakume dira bi istorioetako prota-

gonistak; lehenengoan bi haurrek emango diete bizitza emakume horiei, eta, ondorengoan, bi neska gaztek.

Adinean aurrera doazen bi emakume artistak Broadwayra joatearekin amets egin, baina helburu hori sekula lortu ez dutela kontatzen duen istorioa sortu du Izaskun Arriolak gaur gauerako. 1950ean Tolosako Inauterietan nola parte hartzen zuten irudikatuko dute lehenengo zatian zentroko ikasleek konpartsen, txupinazoaren... bidez. «Ikastaroetako talde bakoitzak konpartsa bat antzetzuko du, eta konpartsa horietako bakoitza dantza bat izango da», dio. Jonan Goenagak egingo du istorioaren kontakizuna.

Ikuskizun hori atontzeko, urte osoan izan du laguntza Izaskun Arriolak. Nagore Etxedonak funky eta jazz eskolak eman dizkie helduei eta haurrei ikasturte osoan, eta haurrekin aritu dira lanean Itziar Garcia, Maria Jauregi eta Naiara Zabala. Aretoko dantzak erakusten jardun du Manu Texeirak, eta *cha-cha-cha* dantza



Gaur eskainiko dute Izaskun Arriolaren ikasleek ikuskizuna. HITZA

bat prestatu du. Berrikuntza gisa, bestalde, salsa ikuskizun bat egingo dutela iragarri du Arriolak; berak prestatutakoa. Fitxa artistikoarekin amaitzeko, esan behar da argiztapen lanean Angel Collado ariko dela; jantzien ardura Rosa Izagirrek izan duela eta Izaskun Arriolak

berak zuzenduko duela ikuskizuna, bere osotasunean.

«Ikasleak irrikaz dira emanaldia eskaintzeko, haientzat aukera polita delako urte osoan landutakoak jendearekusteko», esan du Arriolak. Hark ere gogoia baduela aitortu dio HITZARI.

MENDI-ALDE
Eguneroko menuak eta karta **Jatetxea**
Bataioak, Jaunartzeak, ...
San Esteban auzoa, 39 • ☎ 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Titulazio Ofizialak
ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA Zikloak
SARRERA: D.B.H./ HSAOL BATXILERGOA edo ANTZEKOAK

DESIGNO ETA KREAZIO-AHALMENEAN
oinarritutako HEZKUNTZA

DESIGNO ETA KREAZIO-AHALMEN saila

- KREATIBITATE AZTERKETA
- KOLORE, MARRAZKETA ETA OSAKETA
- PUBLIZITATE DISEINUA ETA MARKETING
- IRUDI KORPORATIBOA ETA PUBLIZITATEA
- IKUSMEN KOMUNIKAZIOA

TEKNOLOGIA BERRIETAKO saila

- LOGOTIPO DISEINUA
- IRUDIEN TRATAMENDU DIGITALA
- MAKETAGINTZA ETA PRODUKZIO EDITORIALA
- INTERNET, WEB DISEINUA & MULTIMEDIA
- ARGAZKILARITZA DIGITALA

ceinpro

2005-2006 KURTSA

Herriz Pseudekua 99
20008 DONOSTIA
Gipuzkoa •
Tel. 943 310875
Fax 943 310875

www.ceinpro.es

VILLABONA ▶ EUSKAL PRESOK

Zelarain fiantzapean askatu dute

10.000 euroko bermea ordaindu ondoren aske utzi zuten atzo billabonatarra Soto del Real espetxetik

IMANOL GARCIA

Julen Zelarain billabonatarra atzo utzi zuten aske fiantzapean Soto del Real espetxetik. 2001eko urrian atxilotu zuten, Baltasar Garzon epaileak Amnistiarekin Aldeko Mugimenduen aurka abiarazitako 33/10 sumarioa dela medio. Datorren urrian, beraz, beteko zituen lau urte behin-behineko kartzeldian. Fiskalak aurreko astean eskaria egin ondoren, atzo si-

natu zuen epaileak autoa eta 10.000 euroko fiantza ordaindu ondoren askatu dute.

«Espero genuen horrelakorik gertatzea», azaldu dio HITZARI Jone Etxeberriak, Zelarain emazteak, Soto del Real espetxera zihoala senitartekoen eta lagunekin. «Urrian lau urte beteko ziren atxilotu zutenetik eta ez zen ikusten aurretik epaiketa egiteko asmorik zutenik». Hamar bat pertsona joan ziren atzo espetxera, tar-

tean Zelarain semea. «Gaur goizean —atzokoagatik— best minutuz hitz egin dut berarekin. Urduri eta pozik dago. Beste atxilotuekin batera ere espero zuen fiantzapean ateratzea», esan du Jone Etxeberriak. Epaiketa datorren urtearen hasieran egingo dela zabaldu du Fiskaltzak, «baina gero askotan ez da betetzen», gaineratu du Etxeberriak. Atzo gauean Zelaraini lehen harrera egiteko asmoa zuten herrian. Datorren

larunbatean izango da ongi-etorri ekitaldia, Villabonan.

Zelarainekin batera beste hiru atxilotu askatu zituzten atzo, denak berme kopuru bera ordainduta. Sumario bera-gatik espetxeratu zituzten; Josu Beaumont eta Gorka Zulaika Zelarainekin batera, eta Iñaki Reta 2003ko otsailen. Fiantzapean aske gelditu eta gero, laurak hamabostean behin epailearen aurrean azaldu beharko dute, antza denez.



Julen Zelarain. HITZA

ANOETA ▶ UDALA

EAEko Ekintza Positiboen III. Plana garatzea erabaki du Udalak

Udaletxean hizkuntz irizpideak finkatuko dira generoari dagokionez

I. GARCIA

Anoetako Udalak zenbait gai onartu zituen egindako azken osoko bilkuran. Foru Aldundiari laguntzak eskatzea onartu zen, 2.000 biztanle baino gutxiago dituzten herriei dagozkienak eta kiroldegiko urbanizazioaren proiektuaren zati bat ordaintzeko. Bestalde, Udalak eta Arridon S.L. enpresak lokal baten salerosketan zuten hitzarmenaren aldaketak zehaztu ziren. Bestetik, EAEko Ekintza Positiboen III. Plana garatzea erabaki zen, ekintza hauekin: udaletxean hizkuntz irizpideak finkatzea generoari dagokionean, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko egitaraua osatzea, Bortizkeria Sexistaren aurkako egunaren inguruan sentiberatze kanpaina antolatzea eta Anoetako Ikastolarekin elkarlana egitea berdintasunaren gaia lantzeko.



Ur-biltegi berriaren eraikuntza lanei Foru Aldundiaren bisita

Anoetan eraikitzen ari diren ur-biltegiaren obrei bisita egin zieten Foru Aldundiko arduradunek, enpresa eraikitzailearen ordezkariak eta Udaleko Jose Ignacio Otermin eta Jesus Mari Arsuaga zinegotziak. Foru Aldunditik Antonio Alberdi, Obra Hidraulikoaren zuzendaria eta obraren jarraipena egiten ari diren injenieri taldea izan ziren. Aldundiak kostuaren %50a bere gain hartu du. Bisita Anoetako Udalak antolatu zuen ur-biltegiaren lanen jarraipena egiteko. Azarorako lan gutziak amaituta izatea espero dute. I. GARCIA

ZIZURKIL ▶ GIZARTEA

Manuel Ignacio Apaolaza hilotz aurkitu dute

Donostiako Miramon auzoan topatu zuten atzo arratsaldean, bularrean tiro bat zuela



Miramonen aurkitu dute Apaolazaren gorpua. JON LOPEZ/IRUTXULOKO HITZA

ERREDAKZIOA

Manuel Ignacio Apaolaza Oiarbide, 42 urteko zizurkildarra hilda aurkitu zuten atzo arratsaldean Donostiako Miramon auzoan, Kutxaespazioa Donostiako Zientzia Museoa-aren alboan. Igande gauean, Gipuzkoako Foru Ogasunaren egoitzako sutea hasi zenetik falta zen Apaolaza. Errotaburu eraikineko zaindaria. Gipuzkoako Diputazioak Errotaburu-ko sutea eta eraikin hartan hilda agertu zen zaindariaren heriotza Apaolazak eragin zituela iradoki zuen herenegun.

Apaolazaren gorpua futbolan ari ziren haur batzuek topatu zuten, eta haiek Kutxaespazio-ko zaindariarengana jo zuten. Bala zulo bat zuen bularrean, eta ondoan arma aurkitu zutela azaldu zuten Er-tzaintzako iturriek. Bere bu-

ruaz beste egin ote duen aztertzen hasi dira. Hain zuzen ere, pistola bat falta zen gertakari larri horiek hasi zirenetik: Ogasunaren egoitzan herenegun hilotz topatu zuten Florencio Parrak zaindaria zizurkildarrari txanda aldatetan eman behar ziona. Ikerketako iturriek ez zuten argitu pistola hori ote zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak sutearen eta hilketaren inguruan zabalduko hipotesiararen arabera, Apaolazak hil zuen Florencio Parra lankide eta nagusia, hain justu, laneko liskarrak tarteko. Gero, sutearen bidez hilketa estaltzen saiatu eta ihes egin zuen. Nolanahi ere, hipotesi horren inguruko zenbait gertakari argituzke zeuden, eta Apaolazaren heriotzaren nondik norakoek oraindik eta argi-ilun gehiago sor ditzakete.

Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzen al duzu?

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bidez, 800 enpresa, kateak, denda, jatetxe... eta era guztietako enfitate baino gehiagok euskararekin duten konpromisoa adierazten dute.

www.bai.euskarari.org

Bai Euskarari Ziurtagiria!

902 430026

Aintzat hartu euskararekin konprometitzen dena!

hitza

AMEZKETA ▶ GIZARTEA

Hirugarren adinekoak forman, gimnastika ikastaroari esker

Asteazkenero 16:00etatik 17:00etara da Ugarte auzoko osasun zentroan; ostegunetan balioanitzeko gelan ordu berean



Gimnastika ikastaroan parte hartzen duten ikasle batzuk ariketa bat burutzen baloiarekin. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Amezketako helduek badute forman mantentzeko aukera, aurreko hilabeteen hasi zen mantenimendu gimnastikako ikastaroari esker. Honetan, Ez-titsu Unzain fisioterapietaren gidaritzapean, gorputzaren atalak lantzeko ariketak burutzen dituzte. Asteazkenero Ugarte auzoko osasun zentroko itxaron gelan eta ostegunero Amezketako balioanitzeko gelan eskaintzen da ikastaroa, 16:00etatik 17:00etara.

Dena den, Ez-titsu Unzainek adierazi duenez, helburu nagusia ez da ariketa fisikoa bera, baizik eta «hirugarren adinekoei etxetik ateratzeko

motibatzea, hauek ondo pasatzea eta elkarren arteko harremanak bultzatzea». Ugarteko taldean 10 lagun inguru biltzen dira astero, asko gutxi, eta puntu ezberdinez osatutako ordubeteko klaseak jasotzen dituzte: beroketak, jokuak eta gorputz-arietak, luzapenak eta masajeak, besteak beste. Irakasle zein ikasleak «pozik eta gustura» daude ikastaroarekin.

Unzain fisioterapeuta, Amezketako eta Ugartez gain, Alton eta Orendainen aritzen da hirugarren adinekoentzako ikastaroetan irakasle lanetan eta bere lana gustuko du, izan ere, «talde bakoitza berezia eta ezberdina» dela dio.

ALBIZTUR ▶

Festa Batzordearen bilera gaur

Gaur iluntzeko 20:30etik aurrera Festa Batzordearen bilera izango da Albizturko Kultur Etxean. Bilera, udako festen prestaketak burutzeko izango dena, herritar guztientzat irekia da, ez bakarrik elkarteentzat edo parte hartzen dutenentzat.

BELAUNTZA ▶

KZguneako tutorearen bisita izango da gaur

Gaur, arratsaldeko 15:00etatik 19:00etara, Belauntzako KZ guneak tutorearen bisita jasoko du. Halaber, *Etxetik eros ezazu* izenpeko ikastaroa eskainiko da, 15:00etatik 17:00etara, non erosketak etxetik irten gabe egiteko pausuak azalduko diren.

AMEZKETA ▶ GIZARTEA

'Big fish' filma zine-klub saio berri batean, gaur

21:00etan balioanitzeko gelan izango da; txokolatea eta bizkotxoak eskainiko dira

N. LATABURU

Gaur Amezketako balioanitzeko gelan, iluntzeko 21:00etatik aurrera beste zine-klub saio batez gozatzeko aukera izango da. Amezketako taldeak hila-betero emanaldi bat eskaintzeko ekimenarekin jarraitu nahi du eta ekainerako Tim Burtorm zuzendariaren *Big fish* filma aukeratu du. Filma ikusteararekin batera, bizkotxoak eta txokolatea eskainiko dira bertaratuenerarte.

Kritika onak jaso dituen film luze estatubatuar honen antzezle nagusiak Ewan McGregor, Albert Finney, Billy Crudup eta Jessica Lange dira. Kontatzen den istorioa, berriz, ondokoa da: Edwar Bloom irudimen handiko gizasemea izan zen: bere bizitzari buruzko istorio harrigarriak kontatzen zituen, eta inguruan zituen guztiak txunditzen zituen haiekin. Bestalde, Bloom-en kontakizun horiek guztiak



Big fish filmaren kartela. HITZA

bere seme William-entzat misterio iturri izan ziren betidanik. Abenturaz jositako film honetan William, bere aitak kontatzen zituen istorioez baliatuz, haren irudi fidela erakitzen saiatuko da. Ez zaio erraza suertatuko, ordea; zeregina horretan errealtatearen eta aitak kontatzen zituen istorio fantastikoen arteko muga bereizi beharko baitu.

MUNDU BAT HAMAIKA LEKU

18 bidaiak txina karibe andaluzia mallorca kantabria

Ekainaren 19tik aurrera

Kupoi guztiak bilduz gero, autorako eguzkitokos jaso dezuzu opari.

berria

Agurak: **EROSKI** / bidaiak

Erakundearen behar-argur
berria

IBARRA ▶

II. Garagardo Azoka oso positiboa izan dela esan dute

ERREDAKZIOA

Ibarrako II. Garagardo Azoka amaituta, antolatzaileek balorazio positiboa egin dute. «Txalogarria» izan dela herriarren auzolana azaldu dute. 16 eta 84 urte bitarteko 200 pertsona baino gehiagok hartu baitu parte. Bestalde, «iazko kontsumoaren antzekoa izan dela», gehitu dute. Irabaziei dagokienez, «helburua herriko 12 taldeentzat diru laguntza lortzea izan da, baina horretaz gain, jendeak ekintzetan parte hartzea bultzatu nahi zen». Balorazioa egiterakoan, puntu negatiboa azokak aurretik eskatzen duen antolakuntzan aurkitu dute: «taldeetako partaideen konpromisoa iazkoa baino baxuagoa izan baita».

Estreinakoz kalimotxo dastatzeko aukera izan da Ibarrako Garagardo Azokan, eta, orohar, jendeari ideia gustatu zaiola azaldu dute. Ekitaldiei buruz, guztiek ere arrakasta izan badute ere, kalimotxo dastaketa lehiaketa azpimarratu nahi izan dute. Ikaztegietakok Joxe Mari Landa izan zen irabazlea. Bidairen zozketa, berriz, Ibarrako Maria Jesus Uhartek irabazi zuen.

Bestalde, partaide eta lagundu duten guztiak deialdia egiten zaie irailean Lastur-en egingo den festara joateko. Bertarako sarrerak uztailean jarriko dira salgai, eta herriar guztiak animatu nahi dituzte antolatzaileek.

ZIGOR ARANALDE ▶ FUTBOL JOKALARIA

«Futboleant ahal dudanera arte jarraituko dut, ilusio handiarekin»

Inglaterrako Sheffield taldearekin jokatu ditu azken partidak ibartarrak; egun, bertan kontratua amaitu ondoren, iristen zaizkion eskaintzen zain dago

IÑIGO TERRADILLOS

Zigor Aranalde, 32 urteko ibartarra Ingalaterrako Ligue One-n Sheffield taldean defentsa lanean ezker alboan aritu da aurtengo denboraldiko azken txanpan. Championship ligara —hemengo 2. maila— igotzea lortu du taldeak denboraldi bikaina egin eta gero. Behin liga amaituta bere jaioterrian izan da atsedean hartzen. Sheffield-ekin duen kontratua amaituta, bertan edo beste talderen batean jarraituko duenaren esperoan dago eta horren inguruan aritu da solasean HITZAREKIN.

Zure azken taldeal Sheffield izan da. Zer moduz bertan?

Oso gustura egon naiz. Ingalaterran ospe handiko taldea da, historia handikoa. 22.000 ikusle izan ditu bataz beste aurtengo ligan. Ligue One-tik Championship-era igo da aurtengo ligan. Poliki poliki gorantz doan taldea da. Gustura aritu naiz bertan, baina zorte txarra izan nuen, jokatzeko hasi eta bigarren partidari txartel gorria ikusi bainuen, eta ezin izan nuen partida gehiago jokatu liga amaitzen baitzen. Bertako jokalariekin eta entrenatzailearekin gustura egon naiz, baita zaleekin ere.

Nola izan zen talde aldaketa? Bertan hasi aurretik Walsall-en jokatzeko nuen. Gustura nengoen, zaletuen aldetik eta ez zezegoen inongo kexarik, baina en-



I. TERRADILLOS

trenatzailea eta nire artean ez zegoen *feeling*-a eta banekien ez nuela han jarraituko. Horrela, orain bi hilabete Sheffield-ekin jokatzeko aukera iritsi zitzaidan. Egun batetik bestera kontua izan zen, eta ez nuen zalantzarik izan.

Egun, zein da zure egoera?

Kontratua amaitu dut Sheffield-ekin, eta ez dut oraindik hango berririk jaso. Iristen zaizkidan eskaintzen zain nago, beraz. Bertan jarraitzea gustatuko litzaidake, batez ere lau urteko nire semeagatik, ingelese menperatzeko aukera

izango lukeelako. Baina, gauzak nahiko poliki doaz. Hemen zerbait aurkituz gero bertan geratzeko aukera ere hortxe legoke. Ikusi egin beharko da, ea zer ateratzen den eta aukera onenari eutsi.

Zein izan da zure ibilbidea futboleant egundaino?

Amaroz futbol taldean hasi nintzen futboleant jokatzeko. Handik Añorgara pasatu nintzen eta ondoren Eibar taldera. Marbellara saltoa egin nuen 21 urterekin. Bi urte egon nintzen han eta Sevillan beste urtebete jokatu nuen. Gero Albaceten

beste bi urte egin nituen eta Ingalaterrara joan aurretik Logroñon ere jokatu nuen. 2000. urtean Ingalaterrara joan nintzen, eta bost urte daramatzat bertan, Wolverhampton herrian bizitzen.

Gero eta euskaldun gehiagok jokatzen du Ingalaterran.

Horrela da. Denak ezagutzen ditut. Xabi Alonsorekin eta Juan Ugarterekin egon naiz han. Iñigo Idiakez ere ezagutzen dut.

Noiz arte futboleant?

Adin honekin etorkizunean pentsatzen duzu. Nire kasuan gorputzaren arabera izango da erantzuna, hau da, jokatzen jarraitzeko ilusio handia dut, beraz, ahal dudanera arte jokatzea gustatuko litzaidake. Alde horretatik zorteak izan dit lesio larririk ez baitu eduki.

Zein da zure futbol jokalarit gustukoena?

Niretzat onena Maradona izan da. Hala ere, nik defentsa moduan jokatu beti jarraitu dut Milan-eko Pablo Maldini.

ZUZENKETA ▶

Atzoko HITZAN kaleratutako Gipuzkoako II. Mailako Aizkolari Txapelketako sailkapena ez zen zuzena; Juan Manuel Erasun izan zen lehena, 7.a Jexux Mari Mujika, 8.a Arkaitz Iriarte eta 9.a Joxe Mari Tellexea.

iragarki laburrak ▶



Abaltzisketa. Sei etxe atxiki, sukalde, egongela, bainugela eta terrazarekin, lehen solairuan, hiru logela, batek bainua du, bainugela

eta bi terraza bigarren solairuan, bi autorentzako garajea eta bokoa beheko solairuan.

Alkiza. Familia bakarreko etxe abikia. 300 m² eraikiak. 4.000 m²-ko lursailarekin eta 4.000 m² partzelatan.

Anoeta. Duplex etxebizitza estreinatzeko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukalde, terraza eta garajea aukeran.

Asteasu. 1050 m²-ko pabilioia alokairuan edo salgai. 250 m²-ko tarte planta. Mota guztiak osagarriekin.

Belauntza. 1.050 m²-ko pabilioia salgai; oso argitsua.

Belauntza. 225 m²-ko pabilioia alokairuan eskaintzen da. Erabat egokitua.

Berastegi. 2 solairuko 100 m²-ko borda. Berritzeko. 75 m²-ko lursailarekin eta 35 eta 50 urteko Laritz pinuarekin.

Berrobi. Behe solairuan berritutako 50 m²-ko etxebizitza.

Bidanía. Bi familierentzat egokituriko azken etxeak salgai. Garajea, sukalde, egongela, bainugela eta terrazarekin lehenengo solairuan. Hiru logela, bainugela eta terrazarekin bigarren solairuan.

Donostia. Gros hondartzara ikuspegiak. 70 m²-ko duplex zoragarria salgai Sagues zonaldean.

Berritua eta igogailuarekin.

Errioxa. Hormilla. Najeratik 3 kilometroa 11 etxe atxiki adosatuta. Lorategiarekin eta igerilekua urbanizazioan. (151.000 euro).

Ibarra. 85 m²-ko etxebizitza salgai. Kanpoaldera. Bizitzera sartzeko. Garajea aukeran.

Lasarte. Hirugarren solairuan 65 m²-ko etxebizitza salgai Oztaran kalean. Kanpoaldera.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioiak salgai, 350m²-ko moduluetatik aurrera.

Najera. 3 etxe atxikiren promozio eta salmenta. 5 solairukoak. Igoigailua, boko eta terraza handiekin.

Tolosa. Iurre. 98 m². Kanpoaldera, eguzkitsua, igogailuarekin, trastelekua eta garaje marra.

Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m² dituen etxebizitza berritua salgai.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m²-ko

etxebizitza salgai. Kanpoaldera, eta oso eguzkitsua. Igoigailuarekin.

Berritzeko premia.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera, berritzeko.

Tolosa. Belate. Laugarren solairuan 70 m²-ko etxebizitza. Kanpoaldera, eguzkitsua, igogailuarekin eta trastelekuarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Duplex-a estreinatzeko.

Tolosa. Letxu kalean 105 m²-ko etxebizitza berritzeko.

Tolosa. Apataerreketa. Bi alturako 2 etxebizitza berritzeko garaje eta lursailarekin.

Urretxu. 780 m²-ko pabilioia 300 m²-ko tarte plantarekin. Dena jarrita. Erakusketak zabalak.

ARESO ▶ SOKATIRA

600 kilotan bigarren eginda, «gogotsu» itzuli dira Suitzatik

Asteburu honetan ekinen dio Euskal Herriko Lur Gaineko Txapelketari Aresok

JAIONE ASTIBIA

Bidaia luzea egin du oraingoan Areso sokatira taldeak, ordu asko bidean, baina «gustura» ibili dira eta, aritu ere bai, eta «gogotsu» itzuli dira: ostegunean joanak, herenegun iluntzean itzuli ziren Mosnang-dik (Suitza).

«Aritu» esan dugu, izan ere horretara joan baitziren, batez ere, asteburuan hiri hartan jokatu den sariketan parte hartzera, 600 eta 640 kiloko sailean, eta sariarekin itzuli dira: 600ekoan, bigarren lekua eskuratu zuten, Mosnang bertako taldearen ondoren geldituz. «Oso gustura gaude», zioten atzo Areso taldekoek: «Ez genuen espero horrelako emaitzak eskuratzerik». Taldea «indarberrituta» etorri dela adierazi zuten. Europa osotik joandako 19 taldek parte hartu

omen zuten larunbateko sari-keetan, Euskal Herriko joandakoak hiru —Areso, Nuarbe eta Getxo—, eta tiraldi guztiak irabazi eta multzoko lehen sailkatu gisa iritsi omen zen Areso final zortzirenetara; azpeitiarrak ere sailkatu omen ziren hirugarren lekuan geldituta. Ondorengo tiraldiak kanporatzaileak izanik, finalerdietarako sailkatzea lortu omen zuen, hain justu, bertako Mosnang taldearekin batera. Finalera, nahiko «hautsita» aillatu omen ziren aresoarrak, «tiraldi oso gogorak egin genituen kanporaketetan, multzo indartsu eta astuna egokitu baitzitigun», argitu zuten atzo, «eta nekatu samar geunden». Mosnang-ek aldaketa pare bat ere egin omen zituen, baina hauek ez, ez zutelako jende gehiagorik. Tiraldi «politak» eginez, etxeok, haiek, alegia, irabazi omen zu-



Iazko Euskal Herriko txapelketako kanporaketa Areson. JAIONE ASTIBIA

ten saria, Areso bigarren geldituz. Gustura ziren, hala ere, mutlak, «horrerraino aillatuta, pena piska bat ere bagenuen baina», argitu zuten.

640ekoan 5. lekuan gelditu ziren: «Arropekin eta guzti, 620 kilo eman genituen guk eta besteak handiagoak ziren»,

zioten. Edozein moduz, «gogoberrituta» itzuli direla nabarmendu zuten.

Hala, larunbatean 17:00etan hasi eta uztailaren 9a arte jokatu den Euskal Herrikoan, 560, 600 eta 640 kilotan parte hartuko du Aresok. 600ekoan hasiko ere, Martiartun.

GIZARTEA ▶

Gizarte Zerbitzuak aisialdi-begirale izateko ikastaroa antolatu du

Udazkenean eginen badute ere, orain egin behar da izen-ematea eta matrikulazioa

J. ASTIBIA

Leitzaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Urtxintxa Aisialdi Eskolarekin batera, horixe, «aisialdi-begirale izateko ikastaroa» antolatu du. Ikastaro hau, udazken aldera eginen dutela eman dute jakitera bertatik: irailaren 5ean hasi eta urriaren 1era arte, 270 orduko iraupenarekin.

Alde batetik, «gutxienez, 18 urte beteak izatea» eta «eskola-graduatuaren jabe izatea» omen dira bertan parte hartzeko baldintzak, eta, bestalde, aisialdiarekin «sentsibilizatuta» egotea. Horrela, izangaiek, «ekainaren 30era bitarteko epea» omen dute bertan matrikulatzeko: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko bulegoetan, asteregunez, 08:00etatik 13:30era bitartean, aurrez 948 510 840

bertako telefono zenbakira deitu eta hitzordua eskatuz.

Izena ematerako, 325 euro sartu behar omen dira. Urtxintxa Eskolak Euskadiko Kutxan duen kontu korrantean eta ordain-agiriarekin batera «argazki bat, Eskola Graduatuaren Ziurtagiria eta nortasun agiriaren fotokopia» eraman. Aditzaera eman dutenez, agiri hauek guztiak ikastaroa egiteko ikasleek jasoko duten dirulaguntza tramitatzeko eskatu omen dituzte «gehienbat», diotenez: «Izena ematera etortzean, Gizarte Zerbitzuak berak, 65 euroko laguntza emanen dio bakoitzari», adierazi dute; bestalde, Urtxintxa Eskolak ere, «izena ematen duten lehendabiziko 20 lagunei 150 euroko laguntza» emanen omen die, bere aldetik, kasu honetan «ikastaroari probe-

txua atera ondoren», zehaztu dutelarik. Horrela, bada, 260 edo 110 euroko kostua hartuko dute beren gain partehartzaileek, kasuan kasuko laguntza jaso ondoren.

Borondatezko lana

«Haur, gazte eta helduen partehartzea eta giza baloreez jabetzea» garrantzitsua dela irizita, «herrian borondatezko lanetan ariko diren lagun gehiago eta hauen lana bulkatzeko» helburuz antolatu omen dute udaletzeko 1. go solairuan eginen duten ikastaro hau.

09:00etatik 14:00etara eta astelehenetik ostiralera emanen omen dituzte 120 ordu «eskola teoriko-praktiko»; beste hainbeste praktikoak, «elkartek, proiektu edo zerbitzu baten egiteko»; eta 30 bat, «lanaren memoria egiteko» bideratuz. Guztiak, irakasle-talde aditu baten gidaritzan eta zuzendaritzapean landutako gaietarako: talde dinamika, animazio teknikak, tailerrak, aisialdiaren pedagogia, programaketa, ingurugiro heziketa, lehen sorospenak, garapen psikologia, sexualitatea, interkulturalitatea eta beste gai mordoska jorratuko dituztelarik.

LEITZA ▶

Aurrez bozka eman ahal izateko bidea jarri dute

J. ASTIBIA

Igandean ikurrinari buruz eginen duten herri galdeketa, aurrez bozkatzeko aukera jarri dute: «Egunean bertan egin ezin dutenentzat edo bozkalekuek bertaratu ezin daitezkeenentzat», bideratuta, jakitera eman dutenez.

Horrela, gaurtik hasi eta ostirala bitarte, hurrengo hiru egunetan, beraz, 09:00etatik 13:00etara, idazkaritzara joatea nahikoa omen da, bozka eskuan. Bertan, datu pertsonalak adieraziz, «zigilatutako kartazal banatan» jasoko omen dute bozka bakoitza, eta dagokion mahaira bideratuko.

Igandean, hautes-mahaiak 20:00etan ixten dituztenean, lehendabizi aurrez emandako bozka hauek sartuko omen dituzte hautes-ontzietan, eta gero ekin kontaketa-ri, argitu nahi izan dutenez.

LEITZA ▶

Alde zaharreko etxeen araudia jendaurrean dago ikusgai

Interesatuek, nahi izanez gero, hilaren 30a arteko epean egin ditzakete alegazioak

J. ASTIBIA

Lehenengo apirilko osoko bilkurak hartu zuen «alde zaharreko etxeak arautzen dituen Hirigintza Planaren aldaketa puntuala» onartzeko hasierako erabakia.

Orain, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu denetik hilabeteko epea dute herriarrek, alegazioak jarri nahi izanez gero: «Interesatuek espedienteak aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharra aurkez ditzaten», ekainaren 30a arteko epea dute, HITZARA Udaletik bertatik igorri duten iragarkiarekin arabera, betiere.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernaldea. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Iruira. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leizta. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

- Garraioak.**
- ▶ Renfe Tolosa: 652889
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egotza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

